

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

317 - 2023ko URRIA

TANZANIAZ
IKASIZ



POSTONTZIA

✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?

✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

ZUZEN ETA JATOR

Egunerokotasun faltsua

Hauxe izan daiteke gaur egun egiten den erdarakadarik nabarmenatariko bat, baita euskaldun zaharren artean ere.

Euskal aditzean, hiru aspektu mota bereizten dira eta hauek ekintza bat burutua den ala ez adierazten digute: burutua (jan du), burutugabea (jaten du) eta etorkizuna (jango du). Erdaraz, aldiz, orainaldiak etorkizuneko balioa ere izan dezake ("Te lo dejo en el bar y lo recoges mañana").

Gure hizkuntzan, ordea, ez da zuzena etorkizuneko kontuez ari garela (planak egitean, aginduak ematean, mesedeak eskatzean...), aspektu burutugabea erabiltzea etorkizunaren ordeaz. Horrela, okerrak dira honako forma hauek:

- ▶ **Gaezan, joaten gara zinemara?* > Gaezan, joango (al) gara zinemara? / Zer iruditzen zaizu gaezan zinemara joaten bagara? Joaten gara forma egunero egiten dugun zerbait adierazteko erabiliko dugu: egunero joaten gara eskolara.
- ▶ **Ematen didazu liburua?* > Emango (al) didazu liburua?
- ▶ **Hasten gara lanean?* > Hasiko (al) gara lanean?
- ▶ **Zer egiten dugu orain?* > Zer egingo dugu orain?
- ▶ **Esaten diozu, mesedez, gero joango naizela?* > Esaiozu, mesedez, gero joango naizela.

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza, Haritz Larrageta eta Andoni Tolosa, Aitor Irastortza.

· ARGAZKIAK:

Juan Antonio Garaikoetxea, Azpiroz, Manex Torrado, Aitor Perez Mangado, J.K Zubieta, Mikel Betelu, Labrit.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.


Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

02 ▶ ZUZEN ETA JATOR

04 ▶ KUXKUXEAN Zorion agurrak

08 ▶ ELKARRIZKETA
Nerea Hernandorena Iraizoz



12 ▶ BATZARRE

14 ▶ ERREPORTAJEA
Lorian, bizipoza hedatuz



18 ▶ KULTURA

22 ▶ ELKARRIZKETATXOA
Ainhoa Sanchez eta Xabi Zabaleta



24 ▶ MAITE DITUT MAITE
Mergelu, Epele, Atume

25 ▶ KIROLA

28 ▶ PLAZATIK PLAZARA
Amalurreko sukaldaritza zerbitzua etxeraino



31 ▶ AGENDA




Aihen Eleta Egaña
Urriaren 8an, 3 urte
Zorionak Pottoki!!! Muxu
handi bat etxekoen
partez!



Aiur Goikoetxea Martirena
Urriaren 31n, 3 urte.
Zorionak pottoko!
Egun polita pasa eta segi bizitzaz
gozatzen. Muxu erraldoi bat
etxekoen partez.

Unax Elordi Saralegui, irailaren 14an
urte bat eta **Aner Elordi Saralegui**,
urriaren 26an, 4 urte
Zorionak bikote! Segi beti bezain
alaitsu! Muxu handi bat familia guztien
partez.



Jone Castrillo Cruz,
Urriak 23n, 15 urte
Zorionak Jone!!
Aupa 15!
Etorri Atallura ospatzera!

Nerea Sestorain
Irailaren 20an, 7urte
Zorionak printzesa!
Ongi pasa zure egunean.
Muxu handi bat etxekoen partez!

Urko Agirrezabala Valencia
Urriaren 8an, 7 urte.
Zorionak Urko!
Jarraitu bizipozaz blai.
Maite zaitugu.



Oihan Eskudero
Abuztuaren 7an,
4 urte. Zorionak
pottoko! Haunditzen
ari dela etxeko
txikia. Segi bizitzaz
gozatzen!!
Muxu erraldoi bat
etxekoen partez!!



Xabi Mindeguia Urrestarazu
Urriaren 30ean, 4 urte
Zorionak Xabi! Oso ongi
pasa zure egunean! Muxu
handi bat etxeko guztien
partez!



Nahia Goikoetxea Ilarregui
Urriaren 8an, 2 urte.
Zorionak Nahiatxo, segi
etxeko baztar guztiak
alaitzen. Ongi pasa
etxeko guztien partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren
20a baino lehen.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Dr. G. Martínez, Dr. J. López, Dr. J. López
Tel. 649 407 051 + faxa: 948 511 051
labrit.net + info@malloak.com

LOIZABAL

TAXI
SOROA

609 168 217
Bederatzi plaza

PUBLIZITATEA
MAILOPEN

Labrit Multimedia
948 210 103
mailopez@labrit.net



BIZIKLETA ETA PATINETEAK HAUTSITA

Azkenaldian, behin baino gehiagotan errepikatu da bizikleta eta patineteak lapurtu, hautsi eta botata uzteko joera Lekunberrin. Jarrera hauekin bukatzeko beharra nabaria da.



MUGIROARRAREN ORDUTEGI BERRIAK

Irailaren 28tik aurrera, Mugiroarren autobus zerbitzuek ordutegi berriak izango dituzte. 6:55 eta 13:05ean abiatuko da Lekunberri-tik Iruñera. Iruñetik Lekunberrira berriz 12:30 eta 17:10ean.




MAILOPE BALORATZEKO GALDETEGIA

Mailope aldizkariak herritik eta herriarentzat egiten du lan. Herriarrek egiten duzue Mailope; horregatik, oso garrantzitsua da guretzat aldizkariari buruzko zuen iritziak jasotzea. Horretarako inkesta bat prestatu dugu. Minutu gutxi batzuk baino ez dituzu beharko betetzeko. QR kodea deskargatu, galdegegia bete eta bidali. Mila esker!

► Laiene Izagirre Askarai (Gaintza)



*Nausik bota dit enbidoa
ta banoa abitzea
Ezta xamura bakar batzuen
komentariok aitzea
Zu bezelako neska politta
goitik bera zikintzea
Motor mundua gustoko dut ta
pentsatzen dut jarraitzea (bis)*



Doinua: Saltarina da txepetxa eta . **Hurrengoa:** Ane Zabala Estanga (Arribe)

ZER GERTATU ZEN IRUNBERRIKO ZINTZURREAN?

1990eko ekainaren 25eko eguerdian hiru etakide eta guardia zibilaren arteko tiroketa batean zibil bat hila gertatu zela eta komandoko hirurak ihesi egin zutela. Hori zen komunikabide guztiek ziotena, hori zen gertaera larria. Eta hiru ETAKoen bila zebilen Nafarroako guardia zibila arratsalde luzean, iluntzean German Rubenach, iruindarra, buruan tiro bat zuela, hil-hurren aurkitu zuenean.

Biharamunean zabaldu zuten bigarren berri latza, komandoko beste biak topatu zituztela eta elkarri tiro egin-eta hil zirela, suizidatu, alegia, tiroketa izan zen lekutik oso-oso hurbil, metro batzuetara besterik ez. Horrelakorik ez zen inoiz gertatu, beren buruari tiro egitea entzutea bakarrik astindu latza izan zen denentzat eta gehiago abertzaleentzat. Eta zer esan gure alderdian, Larraunen, eratu zen komando-laguntzaileko partaide zirenentzat!

Berehala ihes egin zuten Beramendiko zuloa hustu ondoren.

Eta Larraungo gazte horien ihesak are gehiago aztoratu gintuen, jakinik nolako inarrosaldia suposatzen zuen horrelako erorketa batek.

Barne Ministerioaren komunikatuen eta Gorteetan Ministroaren bi agerraldiek suizidioa sinestarazi nahi izan ziguten. Gainerako aukera guziak hertsu nahi zituzten, berena zen egia bakarra. Baina kontakizunak zulo asko zuen, ilun ziren puntu gehiegi, galdera aunitz erantzunik ez zutenak...

Eta Rubenach Iruñeko Ospitaleko ZIUn egonik, hiltzeko arrisku bizian, Poliziak eta Epaileak bi aldiz galdekatuz. Izugarria!

Gerora, Espainiako polizien laguntzaz, Espainiako Justiziaren esku hartze interesatuaz, alderdi politikoen alderdikeriez..., ahal bezala, lurra bota, estali eta atzendu. Eskandalua handia izan zen hasieran, ondoren, tapatu zuten ahal guzia, baina hura ezagutu genuenon bihotzean zauri bat gelditu zen.

Orain Pako Aristi Urrestillako literatur idazle bikainak eta egunkarietako polemista handiak, Irunberri, 1990: Arroilaren negarra liburua atondu digu. Horretarako lekuak, lekukoak, komando laguntzaileetako kideak... den-denekin hitz eginez, uste dut Arroilako misterioa urratzen saiatu dela. Eta erdietsi duela.

Liburu argigarria, zorrotza eta zintzoa; "Euskaldunon hitza" esaten zen bezala oraindik ere, batzuetan bederen, egia dela erakutsi digu Aristik. Ez nuen besterik espero.

Liburu gomendagarria, irakurtzeko erraza, batzuetan nobelagile batek eskain dezaken goi literatura eskaintzen digu, besteetan misterio kutsuko orrialdeak eta askotan polemika zale baten ikerketa zorrotza, galderez eta ahal duenean erantzun argitsuez betea. Bai, kontakizun mingarria, baina gure historia hurbila ezagutzeko liburua. Merezi du merezi duenez.

Juan Aleman

GASBIDEAREN INPOSAKETARI EZ

Berrito ere gasbidearen auzia mahaigaineratzeko beharrean gaude. Hilabeteak aurrera doaz, Nafar eta udal hauteskundeak igaro berriak dira eta ez dirudi gasbidearen proiektua atzera botako dutenik. Horrela, gasbidearen aurkako aldarriak urgentziakoa izaten jarraitzen du.

Gurea ez da auzi isolatu bat. Interes pribatuen esku dauden proiektuak gero eta ugariagoak dira han eta hemen, horietako asko trantsizio energetikoaren edota ekonomia berdearen aitzakiapean saltzen badizkigute ere. Testuinguru honetan, instituzioek proiektuok geldiarazteko dituzten mugak agerikoak dira, gero eta argiago gelditzen delarik aldarrikapenak kalera ateratzearen eta instituzio horietatik kanpo antolatzearen beharra.

Horrez gain, ezinbestekoa da errealitatearen irakurketa zorrotz bat egitea. Gasbidearen auzia ezin daiteke ibilbide ezberdinen arteko proposamenen talkara mugatu. Interes ekonomiko pribatuak behar kolektiboen gainera jarraitzen duten bitartean -eta horrela da ezinbestean kapitalismoan-, inolako proposamenik ez da konponbide. Negozio eta merkatu berriak zabaltzeko inguru naturala suntsitzen duten beste hamaika proiektu suntsitzaile ere badira (Abiadura Handiko Trena, Erdiz, lur emankorren galera poligono fotovoltaiakoak jartzeko...) eta etorkizuneari are gehiago izanen dira. Beharrezkoa da, beraz, horien aurkako borroka hedatzea.

Langileriak ekoizpenaren eta lurraldearen gaineko kontrola izan arte, ingurugiroa eta natura merkantzia huts bailitzan suntsitzen jarraituko dute langileen kalterako.

Gasbidearen inposaketari ez!

Naturaren babesaren eta lurraldearen gaineko kontrola langileontzat!

Kontseilu Sozialista Larraun

HILEKO AZKEN OSTIRALAK, ARAITZEN 22 URTEZ

Araitz haranean azken 22 urteetan zehar, aldarria plazara atereaz presoek eskubideen aldeko kontzentrazioak egin ditugu, Beteluko geltokian gehienetan baita herrietako festa mordoetan ere.

Urte guzti hauetan modu desberdinetan antolatu gara, sorgintxo taldea, herrira talde, orain Sare herritar taldea... Estatuaren aldetik errepresio galanta jaso dugu, dispertsioa, ilegalizazioa... ibarrean ekimen desberdin mordoak egin ditugu: gaztaina jateak, herri kirol probak, mendi itzuliak... Beteluko plazan dagoen harri zaharra ere denok batera tiraka itzuli bat eman genion. Urte luze hauetan lortutako helburu nagusia dispertsioa amaitzea izan da, baina oraindik presoak etxeratzeko bidea luzea da.

Jendearen elkartasuna eta borrokarako konpromisoa goraiatu nahi dugu, batzuek ostiral batean parte hartu dute, beste batzuek gehiagotan eta beste batzuek ostiralero, bat bera ere galdu gabe, jendearen inplikazioa eskatu denean baiezkoa eman duzue eta horri esker ekintza politak gauzatu ditugu. Argi erakutsiz bailara honek herri gisa txertatua duela presoek eskubideen aldeko borroka eta herritarren arteko elkartasuna. Tamalez bide luze honetan lagun batzuk ere hil zaizkigu. Gure gogoan izango ditugu.

Benetan eskerrak eman nahi dizkizuegu denei, herri solidario bat egiteagatik.

SARE herritarra, pertsona desberdinen artean osatutako herritarren sarea da, giza eskubide guztien alde dauden pertsonak biltzeko asmoa duena. Talde honek lan egiten jarraituko dugu, euskal preso, iheslari eta deportatu guztien giza eskubideen alde.

Gogoratu, gaur egun oraindik, 19 preso gaixo kartzelan daude, gradu progresiboak lortzeko oztopoak dituzte, irteera baimenak ukatzen zaizkie, ikasketak egiteko zailtasunak... beren eskubideak urratzen dira egunero. Presoei giza eskubideak galarazi eta mendeku goseak asetzeko aplikatzen zaien kondena bikoitza deusezteza eskatzen jarraituko dugu.

22 urte ondoren, Araitz Beteluko Sarek 2023ko urriko 27an arratseko 20:00etan "Azken Ostiral" batekin, bertako kontzentrazioei amaiera ematea erabaki dugu.

Hala ere, urtean zehar ekintza desberdinak egiten jarraituko dugu eta Lizartzan zein Lekunberrin egiten diren kontzentrazioetara joateko gonbidapena luzatzen dizuegu. Egon adi, mobilizazioak antolatuko ditugu, gure aldarri kalera ateraz jarraituko dugu.

Animo, borroka luzea da, baina iritsiko da euskal preso eta deportaturik gabeko eguna. Lortuko dugu!!!

Araitz Beteluko Sare



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Asteleheneretik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

“Berriz ere hara joatea da buruan dudana”

Uztailaren 26tik abuztuaren 25era Tanzanian egon da Nerea Hernandorena Iraizoz. Bizi ikuskera aldatu dio egonaldiak eta noiz ez jakin arren, ziur dio hara itzuliko dela.



Argazkiak: Nerea Hernandorena

8

Nolatan sortu zitzaizun bertara joateko ideia?

Betidanik izan dut Afrika ezagutzeko gogoia eta niretzat amets bat betetzea izan da. Azken boladan presenteago nuen hara joateko aukera, eta izeba batek bere ezagun bat Tanzaniako eskola batera bi-hiru aldiz joana zela aipatu zidan. Bere kontaktua eskuratu eta bidaiak nola egin zituen azaldu zidan. Hasieran GKE baten bidez joan omen zen, eta gero, bere kabuz. Maiatzean bera

“Niretzat amets bat betetzea izan da”

egondako ikastetxeko zuzendariarekin hitz egin nuen eta handik astebetara, bidaiatxartelak erosita, dena prestatzen hasi nintzen.

Zein helbururekin joan zinen?

Irakasle izanik, hango haurrekin egoteko asmoz joan nintzen. Haien

bizimodua eta hezkuntza ezagutu nahi nituen, euren egunerokoan parte hartuz. Banekien hango errealitatea oso desberdina izango zela, baina jarrera irekiarekin eta gogotsu nindoan.

Non egon zinen zehazki?

Arusha lurraldeko Ngaramtomi herrixkan. Itunpeko eskola bat dago bertan eta 2-14 urte bitarteko 300 ikasle dauzka. Adin ezberdinetakoak elkartuta, 40-50 ikasleko gelatan bantzen dira. Hasi batean zuzendariak umezurztegi moduan ireki zuen eraikina, baina denborarekin eskola ere bihurtu da. Hala bada, bertan bizi diren eta bertara ikastera joaten diren ikasleak elkartzen dira ikastetxean.

Gutxi gorabehera ikasleen herena bizi da han: batzuek ez dute familiarik, beste batzuen egoera zaila da eta beste hainbaten senitartekoak urrun bizi direnez, urtean bitan soilik elkartzeko aukera dute. Gai nontzekoak autobusez etortzen dira inguruko herrixketatik.

Goizean klaseak izaten dira, eguerdian bazkaria eta ondoren, txikienek atsedean hartu edota eskolako lanak egiteko tartea izaten dute etxera itzuli aurretik. Haien etxerako autobus bidaietan joan izan naiz tarteka eta hango errepideek ez dute hementzeko zerikusirik. Hiriarekin lotura egiten dutenak asfaltatuak daude, baina gainontzekoak lurrezkoak dira. Pentsa, eskolatik arratsaldeko hiruretan ateraz gero adibidez, seiak edo beranduago izaten ziren berriz ere eskolara itzultzen ginenerako.

Zerekin egin zenuen topo?

Benetako behararekin. Hasieran



*“Jende asko dago
izugarritzko beharrekin”*

ez nintzen gertatzen zen guztiaz kontziente, baina egunak pasa ahala egoera gogorak ikusten dituzu. Jendea kalean ahal duena salduz aritzen da eta saltzeko zeozor duenak gutxienez zortea du, jatekoa edo bizirauteko bide bat izan baitezake, baina hori ere egin ezin duen jende asko dago benetako beharrekin.



Behar hori hori dago, baina haien bizitzeko modua erabat ezberdina da hemengoarekin alderatuta. Euren jarrera itxaropenez beteta dago eta positiboa da. Ez dut inongo kexa, juizio, inbidiarik... ikusi. Han beti laguntzeko prest daude, dena ematen dizute. Ez zaie inporta haiek gutxiagorekin geratzea zuri edozein gauza emateko edo zu eroso egoteko. Esaterako, poltsekin iritsi eta beti laguntzeko prest egoten ziren, nekatua al zeunden galdetuz. Eta aldiz, zuk haiei zer moduz zeuden galdetu eta inoiz ez zizuten nekatuak zeudetik erantzuten.

Jarrera hori zurekikoa zen edo haien artean ere bai?

Haien artean ere bai. Hau hasieran eskolan ikusten nuen nik eta eskola horretan oso jatorrak, eskuzabalak eta bihotz onekoak zirela pentsatzen nuen, baina kanpora atera ahala, leku guztietan berdin gertatzen zela ikusi nuen. Behin adibidez, autobusarekin etxerako buelta egiten ari ginela, zerbait gertatu (hizkuntza arrazoiengatik ez nekien ongi zer) eta elkartu berri ginen ezezagun batek lagundu zigun autobusaren matxurarekin. Handik beste leku batera joatean berdin, nahiz eta haien artean elkar ez ezagutu. Argi ikusi dudana da elkarlanean aritzen den komunitate bat dela, berekoikeriak lekurik ez duelarik.

Ze harrera egin zizuten orokorrean?

Oso ona, hunkigarria. Hasieran dena berria da, egun bakoitza abentura





Argazkiak: Nerea Hernandez

berri bat, denak ematen dizu atenzioa eta bizitako momentu guztiak barneratzea da nahi duzuna, baina ezinezkoa da. Era berean, beharrezkoa da zure atsedena edo deskonektatzeko denbora hartzea. Hasieratik bai zuzendariaren familiak, bai eskolako irakasle zein haurrek oso harrera hurbila izan zuten nirekiko, maitekorra, beti ondoan egoteko gogoz zeuden. Denak ematen zien atenzioa, gure azalaren koloreak, ileak...

Orokorrean zure bidaia eskolako esperientzia horretan zentratu zen, beraz. Eta eskolaz kanpo, izan al zenuen gauza gehiago egiteko aukerarik?

Bai, Belgikako beste hiru boluntarioekin egin nuen topo bertan. Haien bezala, eskolan egiten zuten lo, baina eskuartearen zuten proiektuak beste gai batekin zuen lotura. Egiten zituzten planak nirekin partekatatu eta irteera desberdinak egin genituen

“Elkarlanean aritzen den komunitate bat da; berekoikeriak ez du lekunik”

elkarrekin. Materuni izeneko ur jauzi bateranzko ibilbidea zuen kafe landaketa batean egon ginen esaterako edo Maji Moto (swahiliz ur epel naturaleko igerilekua) izeneko leku batean ere izan ginen. Azkenik, neurri kabuz, bi eguneko safari bat ere egin nuen Tarangire eta Ngorongoro parke naturaletan. Denetik pixka bat egin dut, beraz.

Bidaia honek zure bizi ikuskeran izan al du eraginik?

Bai. Duela aste batzuk bueltatu nintzen eta hemengo errealiterako itzulera nahiko gogorra egiten ari zait. Beti bizi izan naiz hemen, baina

bueltatu nintzenetik hemengo gauza asko beste modu batean ikusten ditut. Hango errealitatea ikusi ondoren, hemen dugun gehiegizko ugaritasunak atenzioa deitzen dit eta arrotza egiten zait, han beraiek daukaten behar nagusia bizirautea baita. Etxera iritsi eta arropa begiratzaren nuen, zapatak... dena iruditzen zitzaidan gehiegi.

Bestetik, ikasturte hasiera honetan, eskolako erritmora egokitzea pixka bat kostatzen ari zait. Hemengo egunerokoan alde batetik bestera korrika gabiltza, eta han, berriz, “pole-pole”, hau da, mantso-mantso. Han, esaterako, 11:00etan zerbait egingo zutela esaten zuten, baina 11:00ak pasa, 12:00ak... eta oraindik lasai zeuden denak. Egunean bertan proposaturikoa eginez gero pozik, eta aldiz, ez bazen egiten, ez zen ezer gertatzen. Zentzu honetan, hona iritsi eta kontrastea izugarria egin zait.

Haiek nola ikusten gaituzte?

Errespetatu eta zaindu behar dituzten pertsona gisa. Horretaz gain, beren beharra dela eta, botere ekonomikoa duten pertsona bezala ikusiak gara. Konfiantza areagotu ahala, laguntza eskatzen dizute behar dutenerako.

Egia da haien arteko bizimodua errespetuzkoa dela, baina gurekiko bereziki. Gure presentziak atentzioa ematen die. "Mzungu" (azal txurikoak) deitzen gaituzte eta gurekin kontaktu hurbila izan nahi dute ha-

"Hona itzuli eta kontrastea izugarria egin zait"

sieratik. Horren ostean, harremana mantentzea da haiek nahi dutena. Hori dela eta, bertako hainbat irakasle, ikasle, langile eta ezagunekin harremana daukat oraindik ere mezu eta bideo-deien bidez.

Aurrera begira, badaukazu proiekturik?

Hona itzuli nintzenetik, berriz ere hara joatea da, hainbat gauzaren artean, buruan dudana. Beti esan izan dut ez dakidala non bukatuko dudan eta hangoa ezagututa, ez dut baztertzen bizimoduz aldatzea. Ikusiko da. Egia da hemen munduko erraztasun guztiak ditugula ekonomikoki, eta hango egoera justu kontrakoa dela, baina pertsonalki eta bizitzeko moduari dagokionez, nire ustez hemen ez dugu hango lasaitasunik. Kontziente dira duten beharraz eta beren egoera (familia-rena, komunitatearena, eskolarena, hezkuntzarena...) hobetzea gustatuko litzaieke, baina ez dira kexu eta dutenarekin zoriontsu dira.

Jendearentzako mezurik helarazi nahi?

Dugunaren erdiaren erdiarekin bizitzea posible litzateke. Hemen gure oinarrizko beharrak aseak ditugu orokorrean eta dugun guztiagatik eskerrak eman beharko genituzke. Gainerakoa bigarren mailakoa da.

Hango eredia jarraituz, gure ingurukoekin ditugun harremanak zaindu beharko genituzke, elkar zainduz eta lagunduz. Han oso erabilia den esamoldeak dion bezala: "Hakuna matata", bizi dezagun momentua eta zoriontsu izan!!!



Argazkiak: Nerea Hernandezena



▶ AZKEN MUGA JAIALDIA EGIN DUTE BESTE BEHIN AZKARATEN

Zaraten ospaturiko jaialdiak egitarau oparoa izan zuen oraingoan ere. Murala, gazta txapelketa, bertso saioa, filma eta kontzertua izan ziren tartean. Natura eta artea uztartuz, egonaldi goxoez gozatu zuten bertaratu zirenek.



▶ "ISILDUTAKO ESKUAK" LIBURUA AURKEZTU DUTE BETELUN

Jon Abrilek idatzitako liburu horren helburua da gerraosteko emakume langileei ahotsa ematea. Egoerak behartuta, hamaika lanbidetan aritutako hamalau emakumeren testigantzak jasotzen dira bertan. Esku finak eskatzen zituzten lanak izaten ziren adibidez, baina soldata maila eskasekoak, sektore berean ari ziren gizonezkoek baino gutxiago irabaziz, gainera.

MARTINA TOLOSA ETA PEPI OTERMIN EK 100 URTE BETE DITUZTE

Martina Tolosa, araitarra izanagatik, Lekunberrin bizi da gaur egun. Irailaren 29an bete zituen 100 urte "eta familiarekin batera ospatu zuen eguna".
Intzan jaiotako Pepi Otermin berriz, irailaren 17an iritsi zen 100 urtera. Urte mordo darama Tolosan bizitzen eta omenaldia ere egin zioten bertako herritarrek.
Zorionik beroenak bie!



Argazkia: Iker Yaben



MINTZAKIDE SAIOAK ABIATZEAR

Mintzalagunak martxan dira dagoeneko. Haiekin euskara praktikatu nahi? Erraza da, eta doan! Animatu! Izena emateko telefono honetara hots egin: 607 622 102 Edo: <http://emanizena.praktikatu.eus>



KAÑAFEST, METAL ZALEEN ELKARGUNE

Hiru kontzertu kañero egin zituen Printzak pasa den irailaren 16an. Kataluniako Hashtack taldeak eman zion hasiera, Irurtzungo Salv Rural Hardcore taldeak jarraitu eta Bizkaiako Conflict Noisek eman zion errematea. Eguraldi arrazoiak tarteko, Ibarberriko patioan eraman zuten aurrera egitasmoa.

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA BERTAN DA

Urriaren 7an abiatuko da 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa, 24 bertsolarirekin. Hiru ordezkari izango ditugu final laurdenetan: Julio Soto, Fernando Ziganda eta Aitor Irastortza. 18 bertsolari pasako dira finalaurrekoetara eta horietako 8 igoko dira finaleko oholtzara. Abenduaren 2an izango da finala Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.



Lorian, bizipoza hedatuz

Begoña Urbieta eta Esther Auzmendiren familiek osatzen dute Lorian arropa marka berriaren proiektua. Emozioz kontatzen dute egiten ari direna. Proiektuaren helburua ere emozio positiboak transmititzea da.

Arropa nortasunaren adierazgarritzat erabili daiteke

Igor De Castro eta Jon Atxak elkarrekin egin zituzten ikasketak. Esther eta Jonen familia Irlandan bizi izan da zenbait urtez eta bisitan joanda, bertan ezagutu zuten elkar bi familiek. Denak egin dira elkarren lagun, Luar eta Beñatek ere gazte izanagatik prozesu hau ederki borobilduz. 2022ko udan etorri zen Estherren familia Lekunberrira bizitzera eta elkarbizitzarekin batera garatu zen proiektua ere. Urte beteko prozesuaren ondoren uztailean egin zuten publiko Lorian.

Arropa, komunikabide

Iparraldeko jatorria duen adiera da loria. Leku goxo batean egotearen mezua transmititzen du eta bizipoza edota alegeraren sinonimotzat har liteke. Zoriontasuna, poza eta antzeko adieretan murgilduta egin zuten topo hitz honekin, marka honi eman nahi zioten goxotasunarekin bete-betean uztartuz. Hasierako bozetoetan Loria Nafarroa izena jartzeko asmoa zuten, baina eztabaiden ostean eta laburtzeko asmoz, Nafarroaren "n" hori erantsi zioten "loria"ri.

Logoarekin ere ideia mordo bat izan zuten, baina azkenerako zerbait sinplea eta polita izatearen aldeko hautua egin zuten. Orri erraldoi batean, Lorian-en barruan eta hortik kanpo egotea nahi zutena idatzi zuten. Hori izan zen gauzak argitu eta nortasuna definitzeko abiapuntua. *Laguntasuna* eta *maitasuna* bezalako hitzak zeuden bertan, komunitatea eta lankidetzaren oso presente izanik. Oinarriak jartzen lagundu zien orritzarra ederki gordeta daukate, haien museoaren parte izango baita noizbait.



Esther eta Begoña dira proiektu honen motorra. Esther presio heltze bat dela dio Begoñak: "ideia mordo bat dauka borborka eta oso ausarta da". Begoñak, berriz lurreratzeko funtzioa betetzen du eta bien arteko balantzan, oso oreka polita lortzen dute. Esther hegan doan baloi baten moduan abiatzen da eta Begoñak sokatik lotuta ekartzen du. Haien buruari espresatzen utzi ondoren, hortik baliagarriak diren zertzeladak hartuz funtzionatzen dute eta ongi sentiarazteko ideia arroparen bidez gauzatzen ari dira. Arropa komunikatzeko bide gisa gustuko dute eta nortasunaren adierazgarritzat erabili daitekeela deritzote. *Eta zer?* modeloa esaterako, bereziki nerabeei bideratua dago. Bizkarrean darama galdera eta norbera ahaldundua sentitzearekin batera, desafio moduko bat ere iradokitzen du.

Lan banaketa

Diseinuak eta ideiak Esther eta Begoñaren artean sortzen dituzte. Arlo teknikoaren arduraduna Jon da, bera izanik ordenagailuez gehien dakiena. Azpiegitura lanak kudeatzeaz, berriz, Igor arduratzen da, taldearen egonkortasuna bermatuz.

Enpresa bezala erregistratzen pasa dute denbora zati handi bat. Salmen-ta guztiek dute bere BEZ-a, zergak ordaindu behar dira, autonomo kuotak... eta ez zuten beste irtenbiderik ikusten. Proiektua gozamen eta erronka gisa hartzeak eman die aurrera jarraitzeko bultzada. Emaitzek ere badute garrantzia, baina pisua kenduz, ez diote horri haien bizitzak hankaz gora jartzeko biderik utzi nahi. Poliki doaz.

Bi diseinatzaileen artean ideiak hiru multzotan sailkatzen dituzte: gustukoetan, agian baliagarriak



Argazkiak: Lorian

"Proiektua gozamen eta erronka gisa hartzeak eman digu aurrera jarraitzeko bultzada"

izan daitezkeenetan eta gustatzen ez zaizkienetan. Jarraian, bozetoak eskuz egin eta batak besteari erakutsita, konbentzitzen dituzten horiek ordenagailuarekin diseinatzeko pausua ematen dute. Koloreak bukaeran datoz serigrafia tailer batean.

Dena den, inguruko diseinatzaileekin elkarkidetzan aritzeko gune bat ere irekia dute haien webgunean. Kapsula izena jarri diote atal honi eta Aretha Franklin azaltzen den *Errespetua* kamiseta esaterako, Lehendakaris Muertos musika taldeko abeslariak egina da. Proiektuaren filosofiarekin bat egiten duenak proposamenak egiteko aukera irekia du beraz.

Lehen pausuak

Lehen kamiseta eta sudadera bildumak *Giro on* dauka izena. Arropak

aukeratzean, haien bidez hitz egiten ari garela iruditzen zaie: "zure gorputzaren komunikazio bide bat da, izan kontzientzia gehiagorekin edo gutxiagorekin. Ez da berdina beltzez janztea edo dena delako aukeraketa, esaterako." Janzten garenean arroparen bidez zerbait komunikatu daitekeela ulertzen dute eta horietan mezuak testuz adieraziak daudenean, zuzenagoak eta indartsuagoak egiten dira. Interakzio bat sortzeko modu polita dela iruditzen zaie, giro on, rollo ona, mezu positiboak edo txispa polit bat eragiteko asmoz.

Hasieratik erabaki zuten umeetatik helduetara arteko arropa egitea. Eskoletan eta guraso elkarteetan nor ziren zabaltzeko leku bat behintzat bazutela ikusten zuten. "Politak iruditzen zaigu ume batek Eder jartzen duen kamiseta bat eramatea adibidez. Berresteko funtzioa betetzen du, konplexurik gabe. Esaterako ni, hi, gu, zuek, haiek... euskaldunok barneratua dugun gramatika, Eder hitzarekin lotuta joatea oso sutila iruditzen zitzaigun eta orain eskolei existitzen garen mezua zabaltzeko asmoz gabiltza. Ea gure txikitxoek arropa polit hau janzteko aukera daukaten."



“Inguru hurbilaren babesa garrantzitsua ari da izaten”

Publiko egiterakoan jendearen harrera zein izango zen jakiteko in-paziente egonagatik, nabaria da jendearen atenzioa erakartzeko duen gaitasuna Eder arropak esaterako. Begiratu hutsarekin irakur daitekeen mezu labur eta zuzena da. Originalak izateko presio hori gainera kendu eta ateratzen zaienarekin aurrera egin dute. Irune alabak laguntzen die koloreak hautatzen eta ustekabeen, arropa gehienak pastel tonukoak direla ikusi dute. Beraiek horrelakoak direla onartzen dute barrezka. Denborarekin haien abanikoa ere aberastu joango dela aurreikusten dute,

erosleen hautuaren gain ere badago hein batean eta. Inguru hurbilaren babesa garrantzitsua ari da izaten beren hasieretan eta oso eskertuak daude jendea ematen ari den erantzun zein hartu-emanarekin.

Lorian publiko egin berritan, marketingaren unean murgilduta daude orain eta sustoz hartu ditu arlo honek. Denda fisikorik ez izatearekin, sare sozialak dituzte jendearengana iristeko erakusleho nagusi. Enpresa moduan ari behararekin, Instagram erabiltzeko adibidez traba pila bat gainditu behar izan dituzte. Sua da



BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

Trigo Garatua
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI



Argazkiak: Lorian

haien artean horrelakoak gehien menperatzen dituen eta oso lagungarria ari da izaten.

Balio etikoak ardatz

Arropa egina erosten dute lehenik eta haiek ematen dioten balioa diseinuarena da. Kotoi organikoak da arropa, kalitate ona bermatzeko. Hori bai, naturaren eta ekoizten dutenekiko errespetua eta ongizatea ziurtatu nahi zituzten hasieratik. India da kotoiaren iturburu nagusi eta Bangladeshen lantzen dute gehiena. Lan horiek egiten dituztenak haurrak ez direla ziurtatzeko esaterako, hitzarmenak eta lan baldintza onak betetzen dituzten lantegietatik erosten dute arropa soilik. Hori aseguratzen duten nazioarteko zigiluak daude. Orain arte erosle moduan, ez zuten horrelako hausnarketetan gehiegi sakondu, baina saltzaile izateko pausua ematerako argi izan zuten haien

norabide etikoa. Etorkizunera begira, gertuago sortutako arropa erabili nahi lukete baina hasiera bezala, hau izan da irtenbidea eta aukerarik etikoena.

Lorian.eus web orria dute haien salmenta gune. Denda fisikoetan saltzeko eskaintzak ere iritsi zaizkie, baina oraingoz ez dute eskaintzarik onartu. Prezio kontuez ere ikasten ari dira eta denda fisiko horiek ere haien etekinak nahi dituztenez, produktua garestitzea zekarren. Momentuz ez daude horretarako prest. Pena da jendeak arropa fisikoki ukitu eta probatzeko aukerarik ez izatea, jendeak konfiantza gehiago hartzen baitu, baina... pausoz pauso. Hasierako inbertsio ekonomikoa handia izan da eta honetatik ez dute diru etekinik atera. Hala ere, irabazirik izanez gero proiektuan berrinbertitzeko asmoa daukate. Ilusioa egingo lieke diseinu eta tirada berriak egiteko aukerara

“Ilusioa egingo lieke diseinu eta tirada berriak egiteko aukerara iristeak”

iristeak. Aurrera egitea merezi duten zenbait diseinu prest dituzte dagoeneko, baina jendeak Lorian ezagutzeko pausuan daude oraindik.

Bide horretan, arropa ezagutarazteko argazkiei dagokienez, haiek izan dira argazkilari. 4 seme-alabak eta herriko jendea modelo lanak egiteko prest izan dute. Adin guztietako modelook lortu nahi izan dituzte eta jendearen prestutasunarekin sorpresa atsegina jaso dute. Chloe, Beretxu, Unai, Amaia eta Ane aritu dira modelo gisa lagunduz orain arte. Lehen argazki saioa Landetan egin zuten, Kapretonen. Lekunberriko malkorrean ere egin zuten beste saio bat.

Aurrera begira, ireki berri zaien mundu honetan ze bidetatik jarraitzeko aukera daukaten ikertuz dabilta. Moda ekologikoaren inguruan informatuz, arroparen industria, petrolioaren ondoren kutsakorrena dela jakin dute. Laranja azaletatik, piñetatik, kafetik... esaterako kotoiaren moduko zerbait lortu omen daiteke eta kotoi birziklatuen bidea ere aztergai dute, hausnarketa betean murgilduta. Modaren negozioak dauzkan ondorioekin isiltasun handia omen dago. Erabili eta botatzeko tartea murriztuz goaz. Kontziente dira kutsadura handitzeak duen eraginaz eta eskuko arropa erosteak dituen abantailez.

Haien bihozkaidei jarraika iritsi dira honaino. Eskaintzen dutenak harro sentiarazten ditu. Errekonozimendua jaso eta aurrera jarraitzeko aukera suertatzen bazaie, opari gisa hartuko dute.

ETXARRIKO JAIAK



Argazkiak: Imanol Jaka

ALLIKO JAIAK



Argazkiak: Akelar



**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
baberako modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*


- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**HOSTAL
BETELU**

Eguneko menua,
karta, plater
kombinatuak eta
pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09



Atabal
ekinologia

Era askotako
ogiak eta gozoak

**Etkez etxe
banatuko dugu**

Ogia enkargatzeko...
948513151

ARRUIZKO JAIAK



Argazkiak: Maria Vjela eta Oier Astiz

ATALLUKO JAIAK



Argazkiak: Izan Zubillaga

AZKARATE

Azken Uda Dantza ospatu zuten Azkaraten

Flotagailua, txapela eta betaurrekoak eramateko deialdia eginda, egun osoko egitarau oparoa antolatu zuten. Eguraldi onari joku, otordu eta dantzaldiak gehituta umore ederreko eguna igaro zuten.



Argazkiak: Ander Elizalde
eta Beñat Pellejero




Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Urriko azken igandean, Araizko zaporeen feria


Bertako produktuak gertutik ezagutu eta ezagutarazteko aukera izango dugu berriz ere Arriben. Bertako hazia gorde eta erabiltzearen garrantzia azpimarratu nahi dute antolatzaileek eta hitzaldia egongo da gaien gehiago sakontzeko asmoz. Aurten gainera, arkumea burruntzian jateko aukera izango da 25 euroren truke.

15-18 postu egongo dira musikaz girotuak eta honako hauek aurkituko ditugu besteak beste: mermelada, ezta, ogia, gazta, talo solidarioak, sagardogileen sagardo dastaketa... Hauekin batera, eskulan taldekoak, ikasle bidaia egitera doazenak eta herri kirol taldekoek haien ekarpena egingo dute. Animatzen den ororentzat azkenik, etxean egindako janariak eta eskulanak plazara ateratzeko deialdia egin da.

*Mailocean amestua,
sortua eta errotua*

**Araizko zaporeen
7. Feria**

**Aurten ere badator. Arriben
izango da, urriaren 29an.**

**Etxean duzun hori erakusteko edo
saltzeko postua ipini nahi baduzu,
utzi mezua gure whatsappen
lehenbailehen:  674366920**



Zertan sinisten dugun

Gauza asko aldatu dira azken garaian. Sekulako garrantzia duen bat bada, nire ustez oso gutxi hitz egiten dena, sinesmenen aldaketa da. Orain ez hainbeste gizarte katoliko batetan bizi ginen, non gehiengoa hor identifikatzen zen. Kultura horren balioak oraindik bueltaka dabilta, ongi eta gaizkiaren inguruan ditugun usteetan, sexualitatean, erru edo kulpa sententzioan...

Ilusioa eta itxaropena ere badaude orde fedean, babestua sentitzearen ideia, zeozer handiagoaren parte izatearena... horiek galdu direla dirudi, gizartean gabezia nabarmena nabaritzen dudalarik. Jainkoarenganako sinesmenak diruaren sinesmenari eman zion leku, azken aldian horren fedea ere galdu dugularik, ohartuta bizitzeko adina behar dela bai, baina ongizate sakona ez datorrela horretatik.

Ondorioz, azken aldian inguruan sinesmen berriak garatzen ari dira, nolabait aurrekoen antza ere badutenak baina beste modu batera. Adibidez, lehen "Jainkoak nahi badu" esaten zen, orain berriz "unibertsoak bideratzen badu". Lehen "Jainkoaren borondatea hori da", orain "dena zerbaitengatik da".

Uste dut oso garrantzitsua dela sinesmenen inguruan hausnartzea, batez ere kontziente izatea zer sinisten dugun edo zer ez dugun sinisten, horrek eragin handia duelako egunerokoan. Aurreko sinesmenekin bezala, berriekin ere arriskua dago sinesmen horiek "nire alde" erabiltzearena, alegia, seinaleak hartzea bakarrik nire aldekoak direnean, kontrakoak direnean ez, edo munduaren irudi partzial bat egitearena.

Egia izatearen garaietan baino, bideak begiratzeko garaian gaudela uste dut, frogatu, hausnartu, sentitu, bizi, partekatu... eta pertsonaz haratago doan guztiarekin dugun harremana sendotu. Ez da kapritxoa, ezinbesteko beharra da nolabait. Eta zuk, zertan sinisten duzu?



“Ohituta gaudena baino fruta gustu handiagoa du”

Lekunbier garagardoa sortu dute Ainhoa Sanchezek eta Xabi Zabaletak. Ipa motakoa da eskura daitekeen lehena eta Plazaola izena jarri diote honi.

Nola sortu zitzaizuen zuen garagardoa egiteko ideia?

Xabi: Duela bost urte inguru, garagardoa egiteko kit txiki bat erosi genuen anaiak eta biok. Hasiberri gehienek bezala, lehen sortak harraskatik behera bota edo oilaskoa labean egiteko erabili genituen. Azken urteetan, ordea, garagardo edangarria egitea lortu dugu Ainhoak eta biok.

Ainhoa: Garagardo munduan ezagutzen hasi ginen jendeak ere animatu gintuen gure lote propioa ateratzera. Erraz salduko genuela zioten eta haiek ere erosiko zigutela. Bultzada horiekin gehiago animatu ginen.

Zenbat sartzen da lote batean?

X: 800 litro egiten dira, baina gero garbi... estiloaren arabera aldagarria da. Kasu honetan 700 litro atera zi-

tzaizkigun garbi, 2100 botilla inguru guztira.

Produkzio guztia zuek egin duzue edo norbaiten laguntza izan duzue honetarako?

A: Garagardoa egiteko Euskal Herri mailako kooperatiba bat dago beren langileekin. Norberak bere errezeta eraman eta haiek egiten dizute. Beraz, garagardoa norberarena da, baina eskulan guztia haiek egiten dute.

Lan handia al dauka garagardoa egiteak?

A: Etxean eginez gero, lan aktiboak 5 ordu inguru behar ditu. Garbiketa prozesua zailtzen bada, 6 ordura luza daiteke gehienez. Etxeko lotearekin 15 litro egiten ditugu, 40 botellin inguru.

X: Kontua da estilo asko daudela. Lehenik, egin nahi duzun estilokoa nola egiten den ikasi behar da eta guk etxean aldiro estilo ezberdin bat egiten dugunez, denbora asko pasatzen dugu informazioa bilatzen, foroetan galdetzen eta abar.

Zein dira lan prozesuan eman beharreko pausuak?

X: Lehenik, garagar malteatua eros-

“Herriko jendearen harrera gustatu zaigu”

ten dugu. Horrekin infusio moduko bat egiten da, ordu betez 65-69 gradu artean mantenduz. Jarraian, infusiotik garagarra kendu eta gelditu zaigun infusio hori 100 gradutan irakiten jarri ostean, lupuloa botatzen zaio. Bukatzeko, lupuloa kendu eta gelditu zaigun mosto hori 20 gradutara hoztu behar da lehenbailehen. Behin horretara iritsita, legamia bota eta hermetikoki itxi behar da. 2 astez fermentatzen eduki ondoren, botellinetan sartu eta beste bi astez utzi ondoren, edangarri dago.

Nola deskribatuko zenukete zuen garagardoa?

X: Ohituta gaudena baino afruta-



“Dastaketak ere antolatzen ditugu”

tuagoa da. Limoi-laranjaren zitrikoa sumatzen zaio eta pomelo pixka bat ere bai agian. Lehorra da baina bukaerako garratz ukitua dauka.

A: Garagardo freskoa da, udan edateko aproposa. Usai asko daukela komentatu digute baina gero zaporea askoz xuabeagoa da, beraz, ausartu probatzera! Kar-kar...

Ze harrera izan du?

A: Nahiko ona. Hemen ez dago garagardo artisau askorik eta bertakoa izatearekin jendea gehiago animatzen da. Probatu dutenek zoriondu egin gaituzte eta nahiko pozik gaudete. Edateko erraza den garagardoa egin genuen jendearentzat atsegina izango zelakoan eta nire ustez ongi aterata da.

X: Herriko jendearen harrera gustatu zaigu, egia esan.

Non eskuratu daiteke?

A: Kotxera Amairu tabernan dago salgai 3 eurotan.

X: Lekunberriko jaietan ere, plazako txosnan egongo da salgai.

Ipaz gain, beste garagardo motarik ateratzeko asmorik bai?

A: Ezagunagoa den estiloren batekin frogak egiten ari gara, baina ez dakigu ongi aterako zaigun.

X: Nik ezetz esango nuke, kar-kar... Nahiko lan sakrifikatua dakar eta hobby hutsa da hau guretzat. Diru



Arg.: Labrit

aldetik irabazteko baino galtzeko aukera gehiago dago gainera eta zaila ikusten dugu.

A: Nire ustez ere ez, baina badaezpada ez dugu aterik itxiko.

Kontuan izateko besterik...

X: Beti basoan edatea gomendatzen dugu. Gure garagardoak daukan

onena usaia da eta botillatik edanda ezin da horretaz gozatu. Gainera, basora botatzean CO2-a liberatu egiten da, sabela gutxiago puztu eta korroskadak murrizten dizkigularik.

A: Noizean behin garagardo dastaketak ere antolatzen ditugu eta oso polita den mundu hau ezagutzera gonbidatzen zaituztegu!

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

amairu bar
ETIKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK
948504352

Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antzonia.com
Ustegi (Aritz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

Hurrengoa:

Oihane Balda (Gorriti)



Olatz Martirena
(Uitzi)

maite ditut maite gure bazterrak

**Mergelu (912m)-
Epele (873m)-
Atume (882m)**

Ibilbidea: joan-etorria
Distantzia: 6-7 km inguru
Desnibela: 318m
Zailtasuna: erraza




Zergatik aukeratu dut?

Uitzi herritik oso gertu dauden hiru tontor direlako. Hori dela eta, denbora gutxi dudanean egiten dudan bueltaxka da. Gainera, hiru tontorretatik ikusten diren bistak izugarriak dira.

Bidea:

- 1 Uitziko plazatik irten eta Gorritiranzko noranzkoan joango gara. Azkeneko etxean ezkerretara joko dugu pistan gora. Gora iristean, ezkerrera joko dugu.
- 2 Pistatik goazela, bide-gurutze berri bat topatuko dugu. Hor, eskuinera joko dugu.
- 3 Jarraian, Anizeto pasa, eta zelai moduko batera iristean, ezkerretara, hesia ikusiko dugu, hori gurutzatu. Eskuinetik jarraituko dugu bidea.
- 4 Bide-gurutze berri batera iritsiko gara. Hor, aurrera joko dugu (500m) hesia topatu arte. Hesia topatzean, bertan dagoen pasoa igaro (Azpirotzeko muga). Hesia ezkerretara dugula goraka jarraituko dugu Mergelura iritsi arte (denbora guzti horretan Azpirotz herria behealdean ikusi beharra dugu).
- 5 Mergelu atzean utziz, Maioak eskuinetara ditugula aurrera jarraituko dugu. Epelela iritsiko gara.
- 6 Epeletik behera jetsi. Bidea jarraituz, Atumera iritsiko gara. Buelta leku beretik egingo dugu.

Nire gomendioa: hiru tontorretatik dauden bista zoragarriez gozatu! Oso buelta erraza da. Bertatik egunsentia eta ilunabarrak ikustea izugarria izaten da. Gozatu ibilbide honetaz!



Emakumeak protagonista Arruitzen

Festetako egitarauetan protagonismo handia hartu ohi dute kirol ikus-kizunek eta aurten Arruitzen, nobedadea izan dugu pilotan. Ez da asko emakume pilotariek Ados Pilota klub profesionala sortu zutela eta bertatik bertara izan genituen San Kristobal frontoian. Larraungo pilota eskolako neskak hasi ziren palan eta esku pilotaren txanda etorri zen jarraian. Lehia estuaren ondoren Aranburu eta Mujika iritsi ziren 22ra, Etxekolonea eta Etxebeste 15ean utziz.



Rui Costa garaile Lekunberrin

Iruñea eta Lekunberri artean jokatu zen Espainiako Itzuliko 15. etapa. Zuarrarrateko igoera bi aldiz egin ostean, ihes egindako hiru txirrindulariren esprinarekin amaitu zen. Rui Costa portugaldarra izan da lehena, Lennard Kamna alemaniarraren eta Santiago Buitrago kolonbiarraren aurretik.

Sepp Kuss izan da sailkapen nagusiko irabazlea, bere bi taldekideek lortu dituztelarik bigarren eta hirugarren postuak; Vingegaard eta Roglic-ek hurrenez hurren. Mikel Landak bosgarren egin du.



MOTZ-MOTZEAN

VERONICA SATRUSTEGI

Zer behar dute egungo haurrek?

Mimatuegiak omen daude gaur egungo umeak. Ziur naiz esaldi hori, zuk ez bada, zure ingurukoei entzun diezula noizbait. Ba esaldi hori oinarri hartu zuen sare sozialetan ikusi nuen bideo batean agertzen zen mediku eta pedagogogo batek (barkatu, arren, bere izenaz ez bainaiz akordatzten). Egia esaten badizuet gutxi hausnartu dudan gai baten inguruan pentsarazi ninduen eta hitz bihurtu nahi izan ditut zuentzat ere.

Bere esanetan, egun umeek gauza material gehiago badituzte eskura gure egunerokoa aldatu delako da. Besterik gabe. Duela 40 urte etxeetan ez zegoen Play Stationik existitzen ez zelako; panpinak ere nahikoak baino, gutxi ziren, merkatuan zeudenak zeudelako. Eta garrantzitsuena: familien kontsumo gaitasuna egungoa baino mugatuagoa zelako. Gauza material franko edukitzea ez da, beraz, honen esanetan, gaur mizke ("consentido", alegia. Nik ere gaur ikasi dut hitza) hazten ditu(gu?)lako.

Pediatra eta pedagogogo honek zioen haurrek duela 40 urte eta orain gauza bera (eta ia bakarra) bilatzen dutela: gurasoekin kalitatezko denbora igarotzea. Eta igarotzen al dute? Lana dela eta, eskolan bazkaltzen dute askok. Eskolatik atera eta beste hainbatek futbola dute, pilota, gimnasia, xakea, gitarra klaseak, bibolina, antzerkia, eskolako lanetan lagunduko dieten akademiak... Bat ez bada, kasu batzuetan bi eskolaz kanpoko jarduera ere izaten dituzte. Etxera neka-neka iristen dira, justuan etxeko-lanak eta afaltzeko denborarekin.

Afaldu apika bai, gurasoekin eginen dute. Beharbada. Eta ti-ta, lotara, bihar asteartea da eta!



emozioen munduan



● ● Lorea Zulet (Psikologoa)

Belarri prest

Euskaldunon artean ezaguna da esamolde hau. Berez euskara ulertzen baina hitz egiten ez duten pertsoneri egiten die erreferentzia, baina gaur, nire terrenora ekarri nahi dut. Niretzat belarri prest izatea entzute aktiboa izango litzateke, eta gaur entzumen aktibo hori zertan datzan eta ongi egiteko jarraibideak.



Zer da?

Entzute aktiboa, izenak dioen bezala, aktiboki eta kontzientzia osoz entzuteari dagokio. Baina ez hori bakarrik, arretaz entzuten ari garela adierazi behar da. Horrela, bada, entzute aktiboak barne-alderdi bat du, esaten digutenean eta ulertzean jartzen dugun interesean oinarritzen dena, eta kanpoko beste bat, gure keinu eta erreakzioetan beste pertsonak esan behar digunari adi gaudela islatzean datzana. Beraz, entzute aktiboa ez da beste pertsona entzutea, baizik eta beste pertsona komunikatzen saiatzen den mezuan erabat kontzentratuta egotea eta gurekin hitz egiten denbora galtzen ez duela badakiela ziurtatzea.

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

German Lasarte
ARBEGONDO **HARATEGIA**
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arbe-Atallu

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro
eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

INFORMATIKAK ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA AGOPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Enrolaketa 19
Lekunberri
MARILLO Txiki
PARRISUO ERUOLA
www.marillotxiki.com
910 856 626
679 038 016



Zer egin dezaket entzute aktiboa praktikan jartzeko?

- ▶ Kontaktu bisuala.
- ▶ Gorputz jarrera: gorputza hitz egiten ari den pertsonaruntz bideratzea.
- ▶ Kontatzen ari zaizkizunetik arreta ez galdu.
- ▶ Feedback-a igorri: baiezko hitzak edo keinuak erabili, hitz egiten ari den pertsonak esaten duena parafraseatu, laburbildu..
- ▶ Kontakizunari buruzko galderak egin interesa erakutsiz.

Zer ez egin

- ▶ Elkarrizketan zehar arreta galtzea.
- ▶ Hitz egiten duena etetea.
- ▶ Epaitu eta zure ideiak inposatu nahi izatea.
- ▶ Laguntza behar baino lehenago eta informazio faltarekin eskaintzea.
- ▶ Bestea sentitzen ari dena baztertzea eta ez baliozkotzea.
- ▶ Deskalifikatu zure iritzia ematean.
- ▶ Zure istorioa kontatu berea entzun beharrean.



Entzutuen jakitea oso garrantzitsua da komunikazioan, eta hala ez dirudien arren, askotan denbora asko pasatzen dugu guk pentsatzen dugunaren eta esaten dugunaren zain, besteari aktiboki entzun beharrean, interesgarriena kontrakoa litzatekeen. Horregatik, bi belarri eta aho bakarra ditugula esan ohi da.

IORTIA ODONTOLOGIA · HORTZ-ESTETIKA

Ametz Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

Lontxo Otamendi Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

Amalurreko, sukaldaritza zerbitzua etxeraino

Jesi Ansorenak jantoki ibiltaria jarri du martxan Araitzen. Amalurreko du izena eta duela urte batzuk Atalloorra jatetxean lan egin ondoren, gaur egun Jesi bera sukaldari, etxean bezala aritzen da bezeroen landetxe, elkarte edo dena delakoan.

Amalurrak emandako produktu ekologikoei garrantzia eman eta otordu osasuntsuak eskaintzeko asmoz abiatu da Amalurreko proiektua. Herri gehienek daukate elkarte esaterako, baina sarritan ez dira asko erabiltzen eta Jesiren zerbitzuari esker errazagoa izan daiteke planak egitea. Gutxienez 4 pertsonako otorduetatik

hasi eta 70-90 pertsona arteko taldeak onartu ditzake.

Uztailean abiarazi zuen zerbitzua. Zenbait herriko festek bere bidez atera dituzte otorduak aurrera. Horretaz gain, bertako jendea oportetara joana zela eta inguruan turista dezente zebiltzala probestuz, bailara eta bertako produktuak ezagutzeko ibilaldiak eskainiz hasi zen. Araizko Zaporeak elkartearekin harreman estua du eta bertako ekoizleen etxeraino eraman zituen bezeroak, lan prozesuak bertatik bertara ezagutzeko aukera emanez.

Produktu ekologikoekin lan egiteari garrantzi berezia ematen dio, gaur

“Amalurrak emandako produktu ekologikoei garrantzia eman eta otordu osasuntsuak eskaintzeko asmoz abiatu da Amalurreko proiektua”

egungo bizi erritmoarekin zer jaten dugun ahazten ari zaigu eta horrek ondorio zuzena du gure ongizatean. Garaian garaiko elikagaiekin aritzen da soilik eta inguruan ditugun altxorak balioan jartzearekin tematua dago. Gazta, jogurta edo mamia bezalako esneki paregabeak dauzkagu



**Garaian garaiko
elikagaiekin aritzen da soilik
eta inguruan ditugun
altxorrek balioan
jartzearekin tematua dago.**

bertan eta Maitek ekartzen duen haragiaren kalitatea ere azpimarratzen du Jesik. Mari Tereren dendan eskuratu daitezkeen bertako barazkiak ere azpimarratu dizkigu.

Aralarreko inguru eder hauetan barrera mendi ibilaldiari, aho zapore goxoarekin eman die amaiera zenbaitek Jesik prestaturiko picnic landuari esker. Izan Zarateko buelta, izan Azkuekoa, Arribeko ur jauziko edo norberak hautaturiko beste edozein, bukaera gastronomiko goxo batekin itxaron gaitzake guk hautaturiko helmugan.

Sukaldean aritzen ikasi nahi dutenentzako tailer eskaintza ere mahai gainean dauka: gozogintza tailerrak, taloa egiten ikastekoak, bermuta egiten ikastekoak... Dena delako dieta motak egiten ere ikasi liteke berarekin. Norbaitek gatzik gabeko otorduak behar baditu adibidez, aurrez abisatu eta listo. Dieta begano edota begetarianoekin ere berdin.

Ibilaldi zein tailerretan 4 eta 12 pertsona arteko taldeekin egiten du lan. Interesa edukiz gero www.amalurreko.com webgunean sartu eta korreo zein telefono bidez kontaktatzea da eraginkorra. Pozarren erantzungo dizue Jesik. Berarekin aurrez aurre hitz egin nahi baduzue berriz, urriaren bukaeran Araizko Zaporeakek antolaturiko ferian egongo da, zenbait produktu dastatzeko aukera eman eta jendeari egiten duena azalduz.

Interesa edukiz gero
www.amalurreko.com
webgunean sartu eta
korreo zein telefono
bidez kontaktatzea da
eraginkorra.



CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÜS. S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683
Lekunberri



ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones
Gañarbe

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
📧 construccionesganarbe@gmail.com

☎ 616 457 540
☎ 636 827 846

Lekunberri Larraun Eguneko Zentroa

Pertsonarengan oinarritutako arreta zaintzak behar dituzten adinekoen bizi kalitatea bilatzen eta lehenesten duen arreta eredu bat da. Beren beharretatik abiatuta, baina, batez ere, beren eskubideak bermatuz eta arretarako eta eguneroko bizitzarako dituzten lehenetsunak eta nahiak errespetatuz.

Zerbitzuak: erabiltzailearen higieena, jatekoa ematea eta egokitutako garraioa, ordutegi malgu eta egokituarekin.

Programa eta ekintzak:

- ▶ Estimulazio kognitiboa, oroimena indartzea.
- ▶ Terapia funtzionala eta multisentsoriala.
- ▶ Mendekotasunaren prebentzioa.
- ▶ Psikomotrizitatea, mugimen aktibazioa.
- ▶ Gizarte trebetasunak eta erlaxazioa.
- ▶ Fisioterapia neurologikoa.

Harremanetarako: astelehenetik ostiralera
948 980 437 edo 616 397 044 (Silvia)




Lan eskaintza

Amavir Betelun 2 gerokulture behar dira lanean berehala hasteko.

Lanaldi osoko kontratua eskaintzen dute. Soldata hitzarmenaren arabera izango da.

Interesatuta bazaude, bidali zure CVa:
administracion@betelu.amavir.es



▶ AGENDA

URRIA

1 - 10:30ean Lekunberriko trinketea: jardunaldi mikologikoa.

1 - 11:00etan Lekunberriko plazan: Nafarroako Sagardo Eguna.

2 - 18:00etan Lekunberriko udalbatza aretoan: energia komunitatearen aurkezpena.

4 - 18:00etan Lekunberriko udalbatza aretoan formakuntza saioa: jaietan indarkeria matxistari aurre egin.

14 - 10:00etan Albiko aparkalekuan: Larraungo basoen bioaniztasuna ezagutzeko irteera gidatua.

15 arte: ostiral, larunbat eta igandetan Lekunberriko Antonean erakusketa: urak eta gizakiak Larraun-Leitzaldeko paisaia zizelkatuz.

20 - 22:00etan Printzan kontzertuak: Tatxers eta Lukiek. Sarrerak urriaren 12an salgai 12:00-14:00 Printzan.

AZAROA

9-12 - Aldazko festak.

10-12 - Gaintzako festak.

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

PUBLIZITATEA MAILOPEN
Labrit Multimedia - 948 210 103
mailopez@labrit.net

SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologia
Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpaitetan
Mikroblading bekaintetan

LEKUNBERRIKO

Jaiak

Urriak 11, asteazkena

14:00etan Jubilatuen bazkaria Aiestaran hotelean. Ondoren, dantzaldia.
18:00etan 2023ko festetako kartel lehiaketaren sari ematea, udaletxeko batzar aretoan.
18:30ean Festetara deia txalopartekin.
19:00etan Txapinazoa. Ondoren, atamen herrikoia herriko enparantzan. Kalez-kalez irailkorrak txarlangarekin.
21:00etan Zezensuzkoa alde zaharrean.
22:00etan Gazte afaria. Txartelak salgai Mitxauseanean urriaren 6ra arte (15€). Herriko enparantzan.
00:30etan Trikidantz eta DJ Reimy, herriko enparantzan.

Urriak 12, osteguna

9:00etan Goizeko soinua, txistulari taldeak emana.
11:00etan Meza nagusia, San Juan Bataiatzailearen elizan.
11:30ean Erraldoi eta kilikiak, alde zaharretik irtenda.
12:00etan Agurra eta bandera dantza. Ondoren, erraldioen dantza eta kalejira udaletxean.
13:00ean Euskal dantzen erakustaldia Tinkitruki dantza taldearekin, herriko enparantzan.
17:00etan Pilota partiduak: afizionatuak. Jayan Jai frontoian.
17:00etan Poker txapelketa, Aiestaran hotelean.
17:30ean Karaokéa gizarte etxean. Antolatzailea: San Juan gizarte etxea.
18:00etan AtsaldéON!, Ainhoa tabernaren ondoan denetarik musika.
18:00etan Xaibor diskofesta, haurrentzako dantza saioa herriko enparantzan.
19:30ean Bertso saioa: Beñat Gaztelumendi, Onintza Enbeita, Sustrai Colina eta Alaia Martin. Herriko Enparantzan.
21:00etan Zezensuzkoa, Aralar kalean.
00:00etan Gabenara eta DJ Oixani, herriko enparantzan.

Urriak 13, ostirala

9:00etan Goizeko soinua, txistulari taldeak emana.
11:00etan 2022an jaiotakoei ongi etoria, udaletxeko batzar aretoan.
12:00etan Txupinazo txikia, Aralar musika eskola eta Martillotxiki. Batukadak grotua.
12:15ean Puzgarriak eta haurrentzako jolasak, kiroldegian.
13:00ean Tertila lehiaketa, Euskalduna tabernaren inguruan.
14:00etan Herri bazkaria, herriko enparantzan. Txartelak gizarte etxean eta Mitxauseanean salgai urriaren 6ra arte.

17:00etan Pilota partiduak: pilota eskolako txikiak. Jayan Jai frontoian.
17:00etan Mus txapelketa, gizarte etxean.
17:00etan Puro Relajoren emanaldia, herriko enparantzan.
18:45ean Taupada sanba taldea, alde zaharretik irtenda.
21:00etan Zezensuzkoa, Aralar kalean.
00:00etan Esne Beltza, DJ Fresa Morango eta DJ Oixani, herriko enparantzan.

Urriak 14, larunbata

9:00etan Goizeko soinua, txistulari taldeak emana.
10:00-13:00 eta 16:00-18:00 Beigorri parkea eta rokodromoa gazteentzat, kirolgunean. Txu-txu tren aude zaharretik bertara.
11:00etan Hauren krossa, alde zaharrean.
12:00etan Elektrotxuffa elektrotxaranga, alde zaharretik irtenda.
13:00ean Zapotxin pailazoaren emanaldia, Printzan.
14:00etan Kalderete lehiaketa, herriko enparantzan.
15:30ean 4x4 Trial erakustaldia, poligonoan.
17:00etan Xare partiduak, trinketean.
18:00etan Txapela jauritze lehiaketa, ilargi tabernaren ondoan.
18:00etan AtsaldéON!, Aurrerako terrazan denetarik musika, ilargi tabernan teknoa.
19:00etan Solobolo batukada, ilargi tabernatik irtenda. Antolatzailea: Printza.
20:00etan Dantzaldia DJ Oixani-rekin, herriko enparantzan.
21:00etan Zezensuzkoa, aralar kalean.
00:00etan DJ gaua: Mikel Sevillano, Monto eta Oixani, herriko enparantzan.

Urriak 15, igandea

9:00etan Goizeko soinua, txistulari taldeak emana.
11:30ean Erraldoi eta kilikiak, alde zaharretik irtenda.
12:00etan Puzgarriak eta txu-txu tren aude zaharrean.
12:30ean Nafarroako 1. mailako aizkora txapelketaren kanporaketa, udaletxe aurrealdean.
12:30ean Kantuz, herriko enparantzatik irtenda.
17:00etan Pilota partidu profesionalak, Jayan Jai frontoian.
19:00etan Jon Koldo Gudariak taldearen emanaldia, herriko enparantzan.

Urriaren 11tik 16ra feria gunea egongo da frontoiko aparkalekuan. 16an prezio herrikoien eguna izango da.